

PRENTSA-OHARRA: 2021.06.21

Euskal dokumentalek stand birtuala izango dute Sunny Side of the Doc azoka entzutetsuan

- ‘Meet the Basque Delegation’ ekitaldian, zazpi euskal ekoiztetxeren ordezkariak haien proiektuak nazioarteko profesionalei aurkeztuko dizkiete
- Basque Docs katalogoa ere prestatu dute, euskal ekoizleen 69 dokumental proiektu berrienei buruzko informazioa biltzen duena

Euskal dokumentalek hilaren 21etik 25era egingo den [Sunny Side of the Doc](#) nazioarteko azoka entzutetsuan parte hartuko dute euskal ikus-entzunezkoen sektorea **nazioartean zabaltzeko BASQUE. AUDIOVISUAL. markapean**. Urtero Arroxelan (Frantzia) egiten den azoka hau erreferente bihurtu da dokumentalgintzako profesionalen artean, **60 herrialdeko 2.000 profesional baino gehiago** biltzen baitira bertan. Aurten, iaz bezalaxe, internet bidez egingo da. Formatu digitalean ere euskal dokumentalak nazioartean sustatzeko ekimen berritzaileak prestatu dituzte, **Etxepare Euskal Institutuaz gain, Eikenek** (Basque Audiovisual and Digital Content Cluster) eta **Zineuskadik** elkarlanean, Alde batetik, BASQUE. AUDIOVISUAL.-en stand birtuala, eta bestetik, jadanik martxan dagoen ingelesezko [webgunea](#), non **Euskal Herria nazioarteko ekoizpen gune modura**

aurkezten den, etorkizunera begira egin daitezkeen **filmatzeko aukerak** ere bilatuta.

Gainera, euskal ekoizleen ikusgarritasuna sustatzeko helburuz, hilaren 22an, programazio ofizialean **'Meet the Basque Delegation'** ekitaldia antolatu dute. Bertan parte hartuko du Alex Aginagalde Etxepare Euskal Institutuko Kultura teknikariak, BASQUE. AUDIOVISUAL. markaren nondik norakoak azaltzeko. Ondoren, standaren bitartez izena emanda duten zazpi enpresetako ordezkariak haien **proiektuak nazioarteko profesionaleri aurkeztuko dizkiete**. Ekoiztetxe hauetako ordezkariak hartuko dute parte azokan: **Arena Comunicación, Itziar García Zubiri, Kanaki Films, Maluta Films, Pixel Ekoizpenak, Sonora Estudios** eta **Ibaia-Lau Haizetara**. Jarraian, Donostiako Zinemaldiaren baitan egiten den 'Lau Haizetara Dokumentalen Koprodukzio Foroa'-ren berri ere emango du haren ordezkariak.

Halaber, erakustoki birtual horretan, Euskadi, Nafarroa, eta Iparraldeko ekoiztetxeei eta profesionaleri haien proiektuak landu, koprodukzioak sustatu, eta banatzaileak nazioartean bilatzeko espazio bat eskainiko zaie.

Parte-hartze honek **Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen babesa** du. **Basque Docs katalogoa prestatu dute**, euskal ekoizleen **69 dokumental proiektu berrienei buruzko informazioa biltzen duena**, bertaratzen diren profesionalen artean banatzeko.

Info+

Beñat Doxandabaratx
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus
www.etxepare.eus